
MILAKA UME MUTURREKO POBREZIA ETA
GOSETIK ALDENTZEKO BORROKATZEN ARI DIRA

BATU ZAITEZ ALDAKETARAKO



GH kanpaina 2018 –2019

TUTORETZAK



2018-2019 kanpaina

LEHEN HEZKUNTZA 1.a eta 2.a

Tutoretzak – Otoitzak


LEHEN HEZKUNTZA 1.a eta 2.a

Sarrera



Tutoretzen helburu orokorra

- Garapenerako lankidetzaz sentiberatzea, lehenbailehen ebatzi beharreko bi alderdi hauetan: **pobrezia desagerraraztea (1. GIHa)** eta **goserik ez izatea (2. GIHa).**
- **Giza Eskubideen** errespetua sustatzea eta betearazten laguntzea, nahitaez betetzekoak baitira.
- **Genero-kontuak** identifikatzea, gosearen eta pobreziaren arazoekin lotuta.
- Haurrak pobreziak eragindako elikadura okerraren objektu eta subjektu gisa identifikatzea.



JARDUERAK

0 jarduera *(posterra eta triptikoa)*: *Egin bat haien borrokarekin*

1. Lantzen diren gaiak:
Pobrezia desagerraraztea (1. GIHa).
Goserik ez izatea (2. GIHa).
Generoaren ikuspegia pobreziaren arazoarekin lotuta.
Askotariko jarrerak gosearen eta pobreziaren aurkako borrokan.

2. Aurreikusitako denbora: 60’ minutuko saio bat


3. Jarduera mota: talde handian (ikastaldea)


4. Laburpena: ikasgelako ikasleen ekarpenekin osatutako poster baten diseinua.

5. Helburuak: pobreziaren eta gosearen aurka elkartasunezko jarrerak barneratzea.

6. Materiala: posterra, “Donde el corazón” abestiaren hitzak (Álvaro Fraile), koloretako post-itak, paper jarraitua, arkatz markatzaileak, koloretako arkatzak.

7. Jarraibideak:
Ikasle baten irudia marraztuko dugu paper jarraituan. Ikasle bakoitzak bere eskua marraztuko du, eta bere izena idatziko du eskuaren barruan.
Pobreziaren eta gosearen aurka “borrokatzeko” urtean zehar egin dezaketen zerbait, har dezaketen jarrera bat… idatziko dute ikasleek post-it batean. Haurraren irudiaren inguruan kokatuko dira post-itak, eta, horrela, hondoan agertzen den auzoko etxeak osatuko dituzte. Paperean egindako elementuak apainduko dituzte (irudiak, teilatuak, mendiak, zuhaitzak…). Kartel berria kanpainako posterraren ondoan eskegiko da.






Abestia: “El mundo es de todos”

Luis Guitarra

https://youtu.be/LWJlp4aYavI

El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en el
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él.
¿Por qué los animales se mueven?
¿Por qué en los polos hace calor?
¿Por qué contaminamos el aire?
¿Por qué oscurecemos el sol?
¿Por qué desaparecen las plantas?
¿Porque hay quien se dedica a manchar?
¿La tierra, los mares, las nubes?
¿Y luego no quieren limpiar?
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él.
¿Por qué hay países siempre en guerra?
¿Por qué la gente tiene que huir?
¿Por qué las fronteras se cierran?
¿A los que no han nacido aquí?
¿Por qué hay quien se despierta en las calles?
¿Por qué hay quien nunca sido feliz?
¿Por qué en casa tengo seis camas?
¿Si luego nadie viene a dormir?
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él.
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él
El mundo es de todos de todos de todos y todos cabemos en él.
Y todos cabemos en él, todos cabemos en el
Y todos cabemos en él



1. jarduera *(bideoa)*: *Gosearen aurkako ekintza*



https://www.youtube.com/watch?v=zoREXT8qT7g

1. Lantzen diren gaiak:
- Goserik ez izatea (2. GIHa).
- Generoaren ikuspegia pobreziaren arazoarekin lotuta.
- Askotariko jarrerak pobreziaren eta gosearen aurkako borrokan.


2. Aurreikusitako denbora: 60 minutu

3. Jarduera mota: talde txikietan eta talde handian

4. Laburpena: gure kideen beharrez jabetzea eta irtenbidea ematen laguntzea, ikasgelan jarrera erreal bat hartuta.

5. Helburuak:
- Gure ohiko errealitatetik gosea nola desagerraraz dezakegun identifikatzea.
- Munduan gosea desagerrarazteko zer egin dezakegun identifikatzea.

6. Materiala: bideoa, opila, platerak, tapak, papera, bolaluma, abestia



7. Jarraibideak:

Bideoa ikusi aurretik, egoera horretan jarriko dira ikasleak talde txikietan (4-8 ikasleko taldeak). Taldeak laukoak badira, opila emango zaie biri, eta ez zaie emango beste biri. Irakaslea bere mahaian gelditukо da, zer egiten duten behatuz. 1, 2 eta 3 esandakoan, tapa irekiko dute, eta jaten has daitezke. Talde bakoitzean zer gertatzen den begira egongo da irakaslea (ez du ezer esango, eta ez die lagunduko arazoari irtenbidea aurkitzen ere).

Ondoren, irtenbidea nola eman dion kontatuko du talde bakoitzak talde handian.

Gero, bideoa jarriko zaie.

Amaitzeko, ondorio bat aterako dute bizitakoaren eta bideoan ikusitakoaren inguruan; idatzi egingo dute, eta horman eskegiko dute, ondo ikusten den toki batean.

Saioa honako abesti hau kantatuz amaituko dugu

Abestia: *Bastante hay para todos*

https://www.youtube.com/watch?v=cXhIjLMjISs




2. jarduera *(ipuina)*: *HAUR BEHARTSUA, BAINA OSO JAKINTSUA*

Urruti, Afrikako herrialde batean, neska-mutil behartsu asko zeuden. Behin batean, turisten talde bat jolasean ari zen mutiko batengana hurbildu zen, Mupyrengana. Hunkitu egin zen haietako bat; Mupyren uste ona irabazi nahi izan zuen, eta zerbait eman nahi izan zion. Hala esan zion orduan: "Zer iruditzen zaizu jolas bat egiten badugu zurekin eta zure lagunekin? Goxoki batzuk dauzkat, zuetako batentzat. Egin korrika guztiok, eta etxe hartara iritsi eta pareta lehenengo ukitzen duenak, harexek irabaziko du, zer iruditzen?".

Mupy txikia pentsakor egon zen une batez, eta erantzun zion: "Oso ondo, gauza erraza da hori". Berehala, zerbait esan zien Mupyk lagunei. Guztiek elkarri eskua eman zioten; 1, 2 eta 3 entzutean, korrika hasi ziren guztiak… eta elkarrekin iritsi ziren! Turistak zera galdetu zion, harrituta: "Zergatik egin duzu hori? Zuetako batek irabazi behar zuen".

"Bai, badakit. Baina nik ezin nuen zoriontsu izan goxokiak nik bakarrik janez eta lagunak triste edukita. Ez dakit nolakoak izango diren zuen herrialdeko umeak, baina hemen txiki-txikitatik ikasi dugu guztiok bat garela, eta guztia guztiona dela. Gutxi badaukagu ere, daukaguna geure artean banatzen dugu, eta hobeto sentitzen gara horrela", esan zuen Mupyk.





1. Lantzen diren gaiak:

- Pobrezia desagerraraztea (1. GIHa).
- Goserik ez izatea (2. GIHa).
- Generoaren ikuspegia pobreziaren arazoarekin lotuta.
- Askotariko jarrerak pobreziaren eta gosearen aurkako borrokan.

2. Aurreikusitako denbora: 60 minutu

3. Jarduera mota: talde handian

4. Laburpena: ipuina isilean entzungo dute, eta gogoeta egingo dute entzundakoaz; gero, gure ekintzei buruzko ondorioak aterako ditugu.

5. Helburuak:

- Ekintza egoistak identifikatzea gure eguneroko bizimoduan.
- Ekintza egoistak eta solidarioak konparatzea, modu batera edo bestera jokatuz lortuko diren emaitza desberdinak bereizteko.

6. Materiala: goxokiak, papera eta bolaluma

7. Jarraibideak:

Ipuina kontatu aurretik, turistak Mupyri planteatutako jolasa egingo dugu: irakasleak goxoki batzuk izango ditu, eta gelako ikasleetako bati esango dio jolas bat egin nahi duela eurekin. Aurrez zehaztutako toki bateraino joan behar dute korrika, eta iristen den lehenak goxokiak jasoko ditu saritzat. Aukeratutako pertsona horrek irakasleak proposatu diona kontatuko die besteei, eta jolasa egingo dute.
Gero, ipuina kontatuko die irakasleak.
Talde handian, gogoeta egingo dute ipuinean gertatutakoaz, eta beraiek egin dutenarekin konparatuko dute. Ondorioak aterako dituzte, idatzi egingo dituzte, eta paretan eskegiko dituzte.



3. jarduera (*ipuina, bideoa*): *Eskuzabaltasuna eta borondatea*

https://www.youtube.com/watch?v=sj3Cwbhf8U0



1. Lantzen diren gaiak:
Pobrezia desagerraraztea (1. GIHa).
Goserik ez izatea (2. GIHa).
Generoaren ikuspegia pobreziaren arazoarekin lotuta.
Askotariko jarrerak gosearen eta pobreziaren aurkako borrokan.

2. Aurreikusitako denbora: 120 minutu

3. Jarduera mota: talde handian

4. Laburpena: bideoa ikusi ondoren, protagonistak proposatutako jarduera garatuko dugu. Jarduera hau ikastaldean egin daiteke, baina ikastetxe osoan ere egin daiteke. (Zenbait ikastetxetan garatu dute, eta familia askok parte hartu dute).

5. Helburuak: jabetzea toki askotan ekintza txikiak eginez gauza handiak lor daitezkeela.

6. Materiala: bizkotxoaren osagaiak, labea, irabiagailua, labana, bideoa, diru-zorroa



7. Jarraibideak:

Bideoa ikusiko dugu.
Talde handian, bideoko haurrek izan duten ideiari buruz hitz egingo dugu. Ideia gustatzen bazaigu, guk geuk egin dezakegu. Ikasgelako kide guztion artean, bizkotxoa egingo dugu, eta irakasleei salduko diegu. Dirua bildu egingo dugu, gure GKEari emateko.

Pausoak:
- Bizkotxoen errezetak bilatuko ditugu.
- Osagaiak idatziko ditugu.
- Bakoitzak osagai bat ekarriko du etxetik.
- Bizkotxoa egingo da eskolako jantokian.
- Zatitu egingo dugu.
- Bizkotxo zatiak salduko dizkiegu irakasleei jolas orduan.
- Ikastetxe osoan egitea ere proposa daiteke; kasu horretan, gurasoek erosiko lituzkete zenbait familiak prestatutako bizkotxoen zatiak.



4. jarduera *(bideoa)*: *Zu ere gure artean nahi zaitugu*

https://www.youtube.com/watch?v=bkOSOrsDlWk



1. Lantzen diren gaiak:
Pobrezia desagerraraztea (1. GIHa).
Goserik ez izatea (2. GIHa).
Generoaren ikuspegia pobreziaren arazoarekin lotuta.
Askotariko jarrerak gosearen eta pobreziaren aurkako borrokan.

2. Aurreikusitako denbora: 60 minutu

3. Jarduera mota: talde txikietan eta talde handian

4. Laburpena:
Bideoa ikusi ondoren, mundutik bidegabekeriak desagerrarazteko gure kazolan zer osagai jarri behar ditugun identifikatuko dugu.

5. Helburuak:
Munduan pobrezia eta gosea eragiten dituzten bidegabekeriak desagerrarazteko osagaiak identifikatzea.

6. Materiala: bideoa, papera, bolaluma, kazola



7. Jarraibideak:

Bideoa ikusiko da.
Talde txikietan bilduko dira, eta munduan gosea eta BIDEGABEKERIA desagerrarazteko beharrezkoak diren osagaiez hitz egingo dute. Bi osagai aukeratuko ditu talde bakoitzak.
Talde txikian egindako lana talde handian azalduko da. Guztien artean, 6 osagai aukeratuko dira. Idatzi, eta kazola batera botako dira.
Beste ikastaldeko edo beste maila bateko ikasleekin bilduko dira; osagaiak kazolatik atera, eta irakurri egingo dituzte.

